

# 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra



## PRENTSA-TXOSTENA

### DATAK

**Abenduaren 5etik 9ra arte, bost eguneko azoka izango dugu laugarren urtez.**

- Ordutegia: 10:30etik 20:00ak arte (Landako Gunea).
- Abenduak 5: Ikasle eguna. Ate irekiera, 10:30ean.
- Abenduak 5: Inaugurazio ekitadia. 19:00etan Areto Nagusian.
- Abenduak 6: Sormen Beka. Prentsaurrekoa. 11:00etan, Areto Nagusian.
- Abenduak 9: Ate itxiera, 20:00etan.

#### **Komunikazio arloarekin lotutako datak:**

- Akreditazioak: akreditazioa egiteko epea azaroaren 21ean irekiko da. Fitxa bat bidaliko zaie hedabideei, eta webgunean ere eskegiko da.
- Ipar Euskal Herriko aurkezpena: azaroaren 28an izango da, 11:00etan, Baionako Euskal Museoan.
- Balorazioa: 53. edizioko balorazio prentsa-oharra abenduaren 9an bidaliko da, arratsaldean.

### HARREMANETARAKO



Informazioa eskatzeko eta elkarrizketak lotzeko:

Prentsa: Julen Nafarrate Aurrekoetxea

prentsa@durangokoazoka.eus. Telf. 687 245 352

Komunikazioa: Ioar Oteiza Goienetxe

komunikazioa@durangokoazoka.eus. Telf. 660 716 097



## **53. DURANGOKO AZOKA**

2018ko abenduaren 5etik 9ra

## **SAREA**

### **Webgunea**

Orokorra: <http://www.durangokoazoka.eus>

Bertan agertuko da egitarau gaurkotua, sortzaileen sinaduren ordutegiak, unez unekoa, bideoak, argazkiak eta azken berriak.

Prentsa Bulegoa: prentsa-oharrak eta deskargatzeko baliabideak egongo dira.

### **Twitter**

@durangokoazoka

Proposatzen ditugun traolak: #53DA #DAaskodira

### **Facebook**

<https://www.facebook.com/DurangokoAzoka>

### **Instagram**



[http://instagram.com/durangoko\\_azoka/](http://instagram.com/durangoko_azoka/)

### **Flickr**

<http://www.flickr.com/durangokoazoka>

### **Youtube**

<http://www.youtube.com/user/DurangokoAzoka>



## 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra



### FITXA TEKNIKOA

- Antolatzailea: Gerediaga Elkartea
- Babesle Nagusiak: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza.
- Erakunde publikoak: Durangoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Kultura Ministerioa.
- Erakunde pribatuak: BBK, Euskaltel, Eroski.
- Guneen koordinazioa: Berbaro, Ahotsenea, San Agustin Kultur Gunea, Karrika Antzerki Taldea, Topagunea, Kabi@, Plateruena, Azoka TB.

### 53. EDIZIOA, ZENBAKITAN

#### Landako gunea

- Stand kopurua: 247
- Autoekoizleak 17
  
- 200 kultur ekitaldi baino gehiago
  
- Aurkeztuko diren nobedadeak: 439
- Liburuak: 304
- Diskoak: 93
- Aldizkariak: 18
- Argitalpen elektronikoak: 1
- Bestelakoak (joku, agenda, egutegi... ): 23



## 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra

### **Durangoko Azokako aniztasuna 200 kultur ekitaldi eta 247 erakusleihoetan islatuko da**

**Prentsa-oharra / 2018-11-20**

- *"DA! asko dira" lelopean, 158 parte-hartzaile eta 439 nobedade egongo dira 53. edizioan: 304 liburu, 93 disko, 18 aldizkari...*



- *Azokako lehenengo Sormen Bekaren irabazlea abenduaren 6an jakinaraziko da. Irabazleak literaturarekin lotutako produktua aurkeztu beharko du hurrengo urteko azokan.*

Durangoko Azokak 53. edizioko nobedade eta datu orokorrak aurkeztu ditu gaur, azaroak 20, Landako gunean egindako prentsaurrekoan. Gaur hasi dira, hain zuzen ere, Landako guneko erakusleihoen muntaia lanak. Hutsik agertu da Landako gunea gaurko aurkezpenean, baina abenduaren 5etik 9ra arte, nobedadez eta ekitaldiz lepo egongo da.

Gerediagako presidente Nerea Mujikak gogoratu duenez, aurtengo Azoka anitza izango da, azken hilabeteetan euskal kulturak utzitako uzta oparoaren islada: "158 argitaletxe, diskoetxe, kultur elkarte, erakunde eta banatzailek parte hartuko dute. Landako gunean 247 stand egongo dira eta horietan 439 nobedade aurkitu ahal izango ditugu: 304 liburu, 93 disko, 18 aldizkari, argitalpen elektronikoko 1 eta 23 bestelakoak. Autoekoizleen plaza ere izango dugu bosgarren urtez, eta 17 autoekoizle egongo dira bertan".

Mujikarekin batera, Azokako gunetako ordezkariak ere euren espazioaren egitaraua aurkeztu dute banan-banan: Johana Olabarria (Irudienea), Itsaso Gangoitia (Saguganbara), Arantza Arrazola (Szenatokia), Unai Pelayo (Ahotsenea), Esther Soto (Areto Nagusia), Ihintza Orbegozo (Plateruena), Oihane Agirre (Azoka TB) eta Gorke Julio (Kabi@).

Aniztasuna izango da, hain zuzen ere, aurtengo edizioko egitarauaren ezaugarri nagusietako bat, Gerediagako presidentearen hitzetan: "Azoka bizitzeko modu asko dago. Izan ere, batzuk sortuz eta besteak hartuz; izan kantua, poema, nobela, edo ilustrazio,... sormenez beteko da Durango! Bertan aurkitu, ikusi, entzun, ikutu eta sentituko ditugu azken asteetan aurkeztutako diskoak, liburuak, ikus-entzunezkoak, kontzertuak eta emanaldiak".





## **53. DURANGOKO AZOKA**

2018ko abenduaren 5etik 9ra

Sortzaile berriei begira, Azokak ildo berria abiatu du aurten: Durangoko Azokako Sormen Beka. "Euskarazko kultur produktu baten sorkuntza, hasieratik amaierara garatzen lagunduko du, hasi ideiatik eta bere zabalkundera arte. Urtero emango dugun beka honen edizio honetako gaia literatura da. Irailean itxi zen lanak aurkezteko deialdia eta 28 lan jaso ditugu. Oso pozik gaude deialdiak izan duen harrerarekin eta jasotako lan kopuru eta kalitatearekin. Azokan emango dugu irabazlearen berri, abenduaren 6an. 2019ko Durangoko Azokara arte itxaron beharko dugu sormen bekaren lehenengo emaitzaz gozatzeko".

Aurtengo Azokako aurrekontua 659.912 eurokoa izango da. Mujikak azpimarratu duenez, kopuru horrekin Azokak egiten duen ekarpena handia da: "Alde batetik euskal kulturaren transmisio eta zabalkundeari dagokionez, eta, bestetik, alderdi ekonomikotik sektoreari eta Durangaldeari egiten diona".

Azkenik, Gerediagako presidentek Azokara garraio publikoz etortzeko gonbitea egin die azokazaleei. Autoz etorriko direnentzat, doako autobus zerbitzua egongo dela gogoratu du, Landakotik lurretako peaje inguruko aparkalekuetaraino, 20 minutuko maiztasunarekin.



## 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra

# EGITARAU GUNEZ GUNE

### **Areto Nagusia**

Areto Nagusia Azokako partaideek beraien lanen aurkezpena eta zabalkunde lana egiteko lekua da. Bertan izango dira sortzaileak, erakundeak, gizarte mugimenduak... eta denetariko proiektu eta lanak eskainiko dituzte, gai askotarikoak: politika, gizarte gaiak, etab.

Hortaz gain, bosgarren urtez, Areto Nagusian kokatuko da Gogoetaren Plaza. Bertan, abenduaren 6, 7 eta 8an eguerdian solasaldiak eskainiko dira eta arratsaldetan mahainguruak. Aurten landuko diren gaiak 68ko belaunaldia, sormena eta gurasotasuna eta kultur transmisioa eskolan izango dira, besteak beste.


### **Ahotsenea**

Ahotsenea guneak 11 urte beteko ditu aurten. Edizio honetan 100 eskaeratik gora jaso ditu, eta guztira 70 kontzertu eta 42 solasaldi egongo dira bertan.

Zuzenekoei dagokionez, aniztasuna izango da karparen ezaugarri nagusia: rock, pop, rap, folk, elektronikoa, bakarlariak, trapa...

Lehen diskoa aurkeztuko duten hainbat talde egongo dira: Ertzak, Azalera, Zizel, Polybius, Txost, Rolan Garces, Maddi eta abar. Ibilbide luzeko hainbat musikaririk ere euren proiektu berria aurkeztuko dute, besteak beste: Hezurbeltzak (Jon Maia eta Gorka Hermosa), Era Batera (Gatibuko Gaizka Salazar eta Mikel Caballero, Ken Zazpiko Beñat Serna eta Willis Drummondoko Jurgi Ekiza) eta Xabi Bandini (Kerobia taldeko abeslaria). Hainbat talde ezagun ere igoko dira euren disko berria aurkeztera: Hesian, Gatibu, Txapelpunk, Nogen, Izaki Gardenak, Larregi, Iker Lauroba, Skasti...

Ahosenea Solasaldietan 42 aurkezpen egongo dira, batez ere euskal idazleen azken lanak gertutik ezagutzeko aukera egongo da eta literaturaz gain, musika, bertsolaritza eta komikigintza diziplinek ere euren ordezkariak izango dute. Euskal kulturaren hainbat izen bilduko dira: Pako Aristi, Alaine Agirre, Katixa Agirre, Harkaitz Cano, Jon Arretxe, Jasone Osoro, Idurre Eskisabel, Edorta Jimenez eta abar.



## **53. DURANGOKO AZOKA**

2018ko abenduaren 5etik 9ra

### **Saguanbara**

Kultur diziplinei dagokienez, Saguanbaran azken urteetako egitaraurik anitzena izango dute: sormen tailerrak, pailazoak, ipuin kontaketak, liburuen aurkezpenak, jolas tailerrak, umeei egokitutako bertso saioa eta musika ikuskizunak, besteak beste.

Ikasle eguneko Poropoesia tailerrarekin zabalduko ditu atea Txiki eta Handien guneak, eta hurrengo egunetan ordu erdiro izango dira emanaldiak.

Urtero legez, eguerdiko orduetan, areto handia zabalik egongo da, eta eskuragarri egongo dira haur eta gazte literaturan argitaratu diren euskarazko liburuak eta aurreko urteetako liburu gomendagarriak.

Berrikuntzarik ere izango da; ahozkoatasunari garrantzia eta balioa eman guran, azken egunerako, iganderako, ipuin kontalarien maratonia antolatu dute, eta 5 ipuin kontalarik ordu erdiko ipuin kontaketa saioak eskainiko dituzte.

### **Plateruena**

Plateruena kontzertu handien plaza izango da abenduaren 5etik 9ra arte, Durangoko Azokaren baitan. Landako eta gainontzeko guneetako atea itxi ostean, azokazaleek kulturaz eta giroaz gozatzeko aukera izango dute Kafe Antzokian. Aurten Plateruenak izen handiko bost kontzertu proposatu ditu: Esne Beltza, Huntza, Anestesia, Modus Operandi eta Olatz Salvador. Eskaintza anitza, beraz: talde ezagunak, berriak eta estilo nahasketa. Lehenengo lau egunetarako sarrerak [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus) webgunean eros daitezke (azken egunekoa doakoa da).



Horrez gain, aurten berritasun bezala, egunero eguerditan, Azoka Telebistarekin elkarlanean, Hautsi Bolumena musika saioa izango dute, eta bertan artisten elkarrizketak, zuzenekoak eta bideoklipak eskainiko dira.

### **Irudienea**

Ikus-entzunezkoen plaza Zugaza zineman egongo da beste urte batez, 11:00etatik 21:00etara, aurten sortutako ikus-entzunezkoak aurkezten eta 2019an aurkeztuko direnak ere plazaratzen.

Sortzaileak, aktoreak, zuzendariak... bertan egongo dira beraien lanak aurkezten, ikuslegoaren zalantza eta iritziak partekatzen.

Euskal literatura eta kultura zinemara eramana: “Gu, Laboa”, “Gure Oroitzapenak”, “Soinujolearen semea” edo “Margolaria” bezalako lanekin.



## 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra

Gai sozial , historiko nahiz politikoak lantzen dituztenak: “Gurean”, “Han edo hemen, zuk”, “Jainkoak ez dit barkatzen” , “Atsolorra”, “Ez nazazue esnatu”, “Apodaka” edo “Muga deitzen da pausoa” , lan interesgarriak.

Pase berezi nahiz aurre-estreinaldiak ere izango ditugu, kasu honetan gonbidapena beharko da. Gonbidapenak Irudienean bertan hartu ahalko dira azokak irauten duten egunetan: “Soinujolearen semea” , “Muga deitzen da pausoa “ eta “Margolaria”.

Fikzioa, zine esperimentalak, fantasiako filmak: “Zain”, “Espedizio handia”, “Hutsune zurian”, “Lope”, “Errementari”, “Astelehena” edo “June” bezalako lanak ditugu atal honetan.

Eta aipatzeko gelditzen diren guztiak, adibidez: “Oreina” filmak oinarrituriko hiru laburmetraien estreinaldia, "Dantza" dokumental ezberdinez osatutako seriearen lehen lanaren estreinaldia, edo “Aralar, mundua leku den lurra” dokumentala.

### **Szenatokia**

Urtero bezala, Szenatokian arte eszenikoen eskaintza zabala antolatu dute, eta abenduaren 5etik 9ra antzerkia eta dantza izango da nagusi.

Hala, abenduaren 5ean, ikasle egunean hain zuzen ere, antzokia eta antzerkigintza barrutik eta kanpotik ezagutzeko aukera eskainiko dute.



Abenduaren 6an, euskarazko antzerki profesionalari eskainiko diote tarte, Hika antzerki taldearen "Txarriboda" lanarekin.

Hurrengo eguna, abenduaren 7a, dantzaren txanda izango da, Gasteizko Larrua Produkzioen "Baserri" pieza oholtzaratuko baita.

Abenduaren 8an pieza laburrek hartuko dute aretoa, Atx teatroaren “Tomiris”, “Agur eta Dolore” Miren Gaztañaga, Iraia Elias eta Amancay Gaztañagaren umorearekin, eta Anodino teatroaren “Schrodinger-en katua” lanak hautatu dituzte; eta saio hau doan izango da.

Eta azoka amaitzeko, abenduaren 9an, familientzako antzerkiari zabalduko diote tarte, Benetan be antzerki taldearen “Inondik Inora” piezarekin; euskarazko antzerki sorkuntza bultzatzeko ZUBI egitasmoaren babesean sortutako lana.





## 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra

### **Kabi@**

Kabi@k aurten bere kokalekua aldatuko du eta Landako barruan egongo dira.

Heziketak duen garrantzia kontutan hartuta, Ikasle Egunean goizean programazioa irakasteko Jolasmatika mahai jokoarekin jardungo dute eta arratsaldean hezkuntza formal eta informaldaren arteko korapiloak askatzearen inguruan solastuko dute.

Bigarren egunean, aldiz, euskarazko bideojokoen eszenaren berri emango dute, zuzenekoekin eta bertan jolasteko aukerarekin arratsaldean zehar.

Ostiralean, Wikipediaren eguna izango da eta EWKEk lagunduta Wikipediaren inguruko proiektuak ezagutzera emango dituzte.

Larunbatean, berriz, proiektu ezberdin eta anitzak zabalduko dira: Izarkom telekomunikazio kooperatiba, Itsulapikoa.eus auzolaguntza plataforma, Kultursharea proiektu kulturala, Artizarra sare soziala, e.a.


Amaitzeko, azken egunean Uztaritz Beteluren erakusketa bat izango da Kabi@n. Goizean, egileak proiektua aurkeztuko du eta arratsalde osoan zehar egongo da ikusgai erakusketa, bere lanen eta inteligentzia artifiziaren arteko elkarrekintzan eraldatutako lanen emaitza.

### **Azoka TB**

Azoka telebista berrikuntzekin dator. Azoka telebista ibiltaria izango da aurten; Azokako guneetan gertatzen dena ikus-entzunezko formatuan jasotzea izango duena helburu. Hainbat gunerekin elkarlanean, telebistak propio sortuko ditu edukiak.

Eduki hauek zabaltzeko hainbat bide izango ditu: euskarazko tokiko telebistek, azoka egunetan, 21:30etik aurrera Azoka telebistak ekoiztutako hainbat saio eskainiko dituzte: *Azoka Gaur* magazinea, *Hautsi bolumena* musika saioa,... Gainera eduki guztiak, nahieran, Azokako webgunean egongo dira ikusgai. Sare sozialetarako ere, propio ekoiztuko ditu ikus-entzunezko edukiak Azoka telebistak.

Aurten ere, Durangotik harago eraman nahi DA! Durangoko Azoka.



## 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra

### AUTOEKOIZLEEN PLAZA

Bosgarren urtez, autoekoizleek euren espazioa izango dute Durangoko Azokan. Azken urteetan 16 autoekoizleek parte hartu dute; aurten, 17 egongo dira. Autoekoizle guztiak aurretik parte hartu gabekoak izango dira, bakarra kenduta (Iker Uribe, *Ni neu galtzeta* liburuarekin).

Honakoak dira auto-ekoizleen espazioan izango direnak.

#### Liburuak

1. Aline Soberón eta Txema Uriarte
2. Ane Odriozola
3. Angel Remírez de Ganuza
4. Arando Txiki elkarte
5. Bego Goitia
6. Iker Uribe
7. Jose Antonio Recondo Bravo
8. Kepa Luzarraga
9. Nor kolektibo antiespezista
10. Oskia Karrera
11. Pablo Maria Beitia

#### Diskoak

1. Antton Larrandaburu eta Bitxiloreak
2. Blue Konpota
3. Muted
4. Ordago Folk
5. Stai Zitto
6. Maite Eizmendi